

BETIRAKO DANTZAN GURE LUMATZAN

Imanol Miner Aristizabal



Ume-kozkorak ginela, hazteak berarekin dakartzan maliziaren itzalen mugetan, gogoan dut anaietako batek behin, harridura eta irri artean imintzioak eginez nola kontatu zuen Gaztainoko jaietan entzun zuela oholtza gainean aurkezpen lanetan mikrofonotik gizon haundi-haundi bat emakumeen gisara, emeki, xalo-xalo hizketan.

Horixe da Xantitaz dudan lehenengo oroitzapena; harridura, parre eta lotsaz zipriztindutako kontakizun hura, nik ez dakit zergatik baina ganbaran gordeta geratu zitzaidan eta ni ere, gainontzekoak bezala trufatu nintzen arren, ez dut sekula ahaztu.

Xanti eta biok Erdiko Kaleko Zintzilik Irratian ezagutu genuen elkar. 1994 urtearen bueltan 19 urte nituela, *Mikelan Zai* izeneko irratsaio bat egiten hasi ginen Ibon zena, Miren, Nagore, Arantxi eta bostok. Ostiral iluntzeetan izaten zen saioa, gaueko hamaikak aldera, eta hastapen haietan gure aurreko irratsaioa EHGA Meko kide Tino, Mikel eta Xantik berak egiten zuten *Cianuro en Tu Laca de Uñas*, gaueko hamarretan. Irratsaioa egiteko ikastaro tekniko egin genuen eta lehenengo saioa egiteko garaia iritsi zen: Ez daukagu ahazteko, guk kaseta guztiak prest jarrita zintzo-zintzo joan, eta Xantik ustez laguntzen ari zitzaigulakoan nola dena hankaz gora jarri zigun; geroztik ez genion ezer ikutzen utzi.

Garai hartarako jada lamia nintzela barneratuta neukan, nere gaytasunaz harro nengoela uste nuen arren, nonbait aski ez eta kanpora begira ez nuen nahi denek jakin zezaten: hasieratik babestu eta sustengatu ninduten lagunak jakinaren gainean neuzkan, etxeakoak oraindik ez eta pausoak poliki eta sendo emanez nindoan. Eta gauzak nola diren, ez nintzen Mikel eta Xantirekin eroso sentitzen, nabarmenegiak ziren, oso andra-mariak biak nork baino nork lumatza harrogo astinduz, ez nuen neure burua haiengan

isladatua ikusten eta badaezpadako distantzia hartzen nuen beti haiekin nahas ez nindezaten. Eta aldi berean, astero-astero ostiraleko irratsaioetan eta ostegunetako batzarren batean edo bestean, nahiz kalean, Xenpelar Etxean, Zumardian pasaeran agurtu eta elkar kontrolatzen genuen. Kontrolatu diot, Xantik berak ere, geroago aitortu zidan bezala, bide beretik nentorrela igarria baitzidan ordurako. Beraz oilotegitik agertzea denbora kontua besterik ez zen.

1995a iritsi zen eta gu Zintzilik Irratian astero, Gazte Asanbladan tarteka, besteak beste unibertsitateko Deiadarren hastapen-tan eta neroni Lau Haizetarako gazte taldearen antolakuntza lanekin nenbilela harrapatu ninduen Gazte Egun hartan Ibonen heriotzak. Bizitzaren izaera iheskorraz jabetuta, lamien artera agertzeko modua emango zidan lehen egokiera baliatu eta azkenean pausoa eman nuen, 21 urterekin Gaztegay taldearen afari batera eta geroxeago EHGA Meko herriko gaztetxean antolatutako festetara joaten hasi nintzen karreran ikaskide nuen beste lamia baten eskutik.

Hala ere, bakardade sentimendu larri bat bizkar-hezurretik kendu ezinda joaten nintzen herriko gaztetxeko festa haietara. Kuadrilako lagunak ere, neskak guztiak, behar baino uzkurrago, eta festaren batera edo bestera lagundu nindutenean, lehen poteak hartu eta ez ziren sobera luzatuko; hortik aurrera berriro bakarrik, eta bertigozko momentu haietan beti etortzen zen Xanti hizketagaia eman, saltseatu eta solastuz konpainia egitera. Inguru arrotz hartan berria nintzen eta jada eratuak zeuden lagun taldeetan sartzen ez nuen asmatzen, ez nintzen ausartzen, baina poliki-poliki bidea eginez sasoi hartan ezagutu nituen gerora ahizpa gertukoena izango nituenak: Jon, Etorre, Mikel eta haien lagun eta ezagunak. Lauak euskaldunak, gehienak ikastoletan ikasiak ginen, gure artean eus-



karaz aritzen ginenak eta Xantiren begietan "poxpolinak" edo "las puxpus".

Eta ahizpa hauen ondoan ezagutu nituen Xanti bera, Mikel, Emili eta gainerakoak gertuagotik, euren argi eta ilunekin, bizitzak ez ezik bizilagunek ere emandako egur guztiaren ondoren zutik, harrokeriarik gabe baina harrotasunez, duintasunez aurrera, bizipozez eta umorez, beti galtzaileen artean eta beti irabazten. Eta gazteago nintzela Mikel eta Xantirekin sentitutako lotsak, deserosotasunak, aurreiritziak, banaka-banaka eran-

tziz eta badaezpadako distantziak hurbilduz, neure burua haiengan islatua ikusten hasi nintzen, nire lumatzaz jabetzen eta gogua dudan orduan izkutatzaz nahiz harroki astinduz, andra-mariak ere pertsona direla ikusten, ni ere gisa berekoa naizela onartzen eta bakoitza egiten ari den ibilbideari begirunez begiratzen.

Xantik gurekin askatzen zuen barruan gordetzen zuen euskalduna eta arrastaka eginda ere euskaraz saiatzen zen sarri. Hizkuntza ordezkapena txikitatik kalean ez

ezik, etxetik beretik ezagutu zuen, baina ez zen euskaldun etsia, dexente ondo ulertzen zuen eta oinarrizko gauzak esaten ere ederki moldatzen zen. Julia amari, txikitatik ikasitakoa, gaztetan dantza munduan nahiz kantuan egindako saioekin osatuz Kultur ondarearen ezagutza zabaleko pertsona zen eta jardundako lekuetan hala erakutsi zuen.

Gay-les askapena bera, gure adierazpen moldeetara zabaltzearen aldeko izan zen, euskal-dantzen munduan nagusi den sexismoa (eta heterosexismoa) agerian jarritzeko esate baterako. GLBT mugimenduan gutxiak izandako globalizazio edo hobe esan, kultur ordezkatzeko prozesuak berarekin dakarren eskasia eta pobretzea hasieratik beretik ikusi zituen eta bere lekukotasunarekin, atzetik gatozenera kolore eta aniztasunaren aldeak erakutsiz ipar berri bat erakutsi digu.

Alperra eta nagia eginez ezagutu nuen lehen egunetik, baina beti zebilen ideiak proposatuz eta gogoko zituen kontuetan ttarraka-ttarraka lan eginez. Hortik sortu zen esate baterako Lau Haizetara Aldizkariren 85. alean azokako *Pepi Arotxa* arrainketariari egindako elkarrizketa eta hasieratik hartu zuen parte gay eta lesbianen memoria historikoa berreskuratzeko biltzen hasi zen lantaldean ere. Izan ere, Xantiren heriotzeak, lagun baten galera ez ezik, gure memoria berrekitzeko pieza klabe bat galtzea suposatu digu, gertakari ugariaren lekukoa izan zelako, jende ugari ezagutzen zuelako eta memoria aparta zuelako.

Xanti bihotza, zurekin asko eramanean duzun arren, mordoska da azken urteetan konpartitu duguna eta beraz nerekin ditut zure jarioaren grazia eta miztoaren koloria, Zintzilik Irratia edo herriko irrati libre-petarduaren oroitzapenak, Gaztetxeko festetakoak, Jareñokoak, Lobato Etxekoak, festa osteko after eta gosariak, Abenduak 1 eta ekainak 28ko elkarretartzeak, Mikelazulon drag-queenez mozorrotu zinenekoa, Bilboko jaietan Egunkariaren txoznan, Oiartzungo Xanixtebanetan Harri Beltzarenean, herrikoetan Txintxilikenean egindako turnoak, elkarrekin Zinemaldira joan ginenekoa, hemengo klarisa eta hango benediktiñeen konbentuetako kontuak, zure *matxiruloen* eta nere *txotxildeen* kuadrilak, Xenpelar Etxeko bisitak, Zumardiko terrazetako egonaldiak eta kioskuan uztailaren 25ean eta San Inazio egunean bandak emandako dantzaldi eta kontzertuetan egindako dan-

tzaldiak besteak beste; guztiak, betirako dantzaz gure lumatzen.

Xanti maitia, nola galduko nuen ba herriko xeme-alaben urtekari gutziatuenaren aurtengo alean zure aipamena egiteko aukera? Ez horixe maitte! Zure heriotza goiztiarrak Xenpelar Etxean, herrian eta oilotegian ez ezik gure bizitzetan utzitako hutsunera oraindik ohitu ez naizen honetan, lerro hauek idatzi nahi izan ditut, zure izena eta izana goren gradora jaso eta kultura eta historia letra larritan egiten dutenen parean jarraitzen. Ez duzu-eta gutxiago merezi, izan ere zure bizitza laburrean Ararteko, egunkari bateko zuzendari edo gisako kargu entzutetsu bat betetzera iritsi ez zaren arren, eta zure heriotzak hedabideetan oihartzunik apenas izan ez duen arren, gure herriaren historian leku txukun bat dagokizu, herritar ugariaren sexu askapenean eta garapenean giltzarrietako bat izateaz gain, aintzindaria izan zarelako.

Historiak itzuli asko ematen ditu ordeak. Francisen heriotzaren salaketatik sortutako EHGAM-Gipuzkoaren hastapenean, ultraeskuindarren erasoak zure larrutan nozitu zenuen garaian, nahiz gerora etorritako urte zailetan egindako lan eskergaren ondoren, aitortza edo esker ona beharrean, espektakulu patetiko baten lekuko izatea tokatu zitzaizun 90en hondarretik hasita: Gehituen sorreran eta garapenean paper nabarmena jokatu zuten kide jakinek, gizartean hainbeste kalte eraginda plano politikoan agortzen zen Ajuria Eneako eskema, elkarrean mundura ekarri eta bere bidea egin ondoren, besteak beste zerorrek egindako lanaz erdeinuz mintzatzen entzutea edo memoria izkutatzeko ikustea ere tokatu zitzaizun eta ondorioz zuek egindako lanaren aitortza eta beraz dagozkizuen dominak izkutatzeko tentazioa ikusita joan behar izan duzu. Gaur egun haieiako batzuk, administrazioko kargu entzutetsuak betetzen dituzte, eta iritsi diren lekura iritsi badira, lehenago beste batzuek garesti ordainduta, bidea ireki diezuelako dela gogoratu nahi dut lerro hauetatik.

Eta Oarso urtekariko irakurle zintzo eta kristauen behatz artean, zuk hainbeste maite zenuen Astondoa etxeko piroteknia sorta hau guztia zartarazi eta gero, astin dezadan eskuartearen dudaren abaniko hau zuk erakutsi bezala, eta noan plazara txulomiran bazterrak jitzen jarraitzera, mundu honetara oharkabian pasatzeko ez ginen jaio-eta. ■